*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**6.585**

**845/2005 ERABAKIA, urriaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidore eta bokalak izendatzeko hauteskundeak deitzen dira.**

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidore eta bokalak hautatzeko foru arauak, 1984ko uztailaren 30eko Biltzar Nagusietan onartutakoak, zera dio 6. artikuluan: Foru Aldundiak deituko dituela kargu horietarako hauteskundeak.

52/1992 Foru Arauaren 5.6) artikuluak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoarenak, Diputatuen Kontseiluari ematen dio eskumena kargu horietarako hauteskundeak deitzeko.

Horregatik guztiarengatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidoreak eta bokalak izendatzeko hauteskundeak deitzea.

Bigarren.- Hauteskunde horietarako data ezartzea: bi mila eta bosteko azaroaren hogeita zazpia.

Hirugarren.- Toki Administrazioaren Saileko diputatuari ematen zaio aginpidea hautaketa-prozesu hau behar bezala garatzeko egintza eta xedapenak ezartzeko, dagozkion alderdi guztietan.

Laugarren.- Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urriaren 4a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua, ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.

## Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**6.797**

**Betearazpen zenbakia: 26/2005**

Zergak Ikuskatzeko Arautegi Orokorrak —abenduaren 9ko 2043/1986 Foru Dekretuak onartu zuen eta otsailaren 23ko 278/88 Foru Dekretuak aldatu— 5. artikuluan xedatzen du foru aldundi honetako zerga ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioek beteko dituztela zergak ikuskatzeko eginkizunak, baita aldundiak eginkizun horiek garatzeko izendatzen dituen pertsonek ere. Azken horretarako, zehaztu egingo ditu zein funtzionario taldetan egingo diren izendapen horiek.

Ikusi dira , Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 2005eko abuztuaren 3ko 1206 eta 1208 zenbakietako ebazpenak –horien bidez, bi funtzionario izendatzen dira zerbitzu eginkizunetan, zerga ikuskatzaile laguntzaileen lanpostuetan aritzeko-. Horren ondorioz,

EBATZI DUT:

Juan Carlos Blázquez González jauna eta Jesús Mariano García Ruiz jauna zerbitzu eginkizunetarako izendatzea, zerga ikuskatzaile laguntzaileen lanpostuetan aritzeko. Izendapen horrek 2005eko irailaren 1etik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urriaren 7a.– Ogasuneko zuzendaria, ÁNGEL BARRASA SOBRÓN.

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

INGURUMEN ZUZENDARITZA

**6.728**

**Iragarkia**

Urriaren 5eko 840/05 Foru Agindua betez, lehiaketa irekia deitzen da honako zerbitzua kontratatzeko: “Gorbeiako Parke Naturalean zenbait lan egiteko laguntza teknikoa”.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**6.585**

**ACUERDO 845/2005, del Consejo de Diputados de 4 de octubre, que convoca las elecciones para la designación de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava.**

La Norma Foral de Elección de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava, aprobada por las Juntas Generales el 30 de julio de 1984, establece en su artículo 6º que las elecciones para tales cargos se convocarán por la Diputación Foral.

El artículo 5.6) de la Norma Foral 52/1992, de Organización, funcionamiento y régimen jurídico de la Diputación Foral de Álava atribuye al Consejo de Diputados la competencia para convocar las elecciones a tales cargos.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de la fecha,

ACUERDO:

Primero.- Convocar elecciones para la designación de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava.

Segundo.- Señalar como fecha de celebración de tales elecciones el veintisiete de noviembre de dos mil cinco.

Tercero.- Facultar a la Diputada de Administración Local para dictar cuantos actos y disposiciones sean necesarios para la íntegra tramitación del proceso electoral en todos sus aspectos e incidencias.

Cuarto.- El presente Acuerdo entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 2005.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– La Diputada de Administración Local, ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**6.797**

**Resolución número: 26/2005**

El artículo 5º del Reglamento General de la Inspección de los Tributos, aprobado por Decreto Foral 2043/1986, de 9 de diciembre, modificado por Decreto Foral 278/88, de 23 de febrero, establece que las funciones de la Inspección de los Tributos serán ejercidas por los funcionarios pertenecientes al Cuerpo de Inspectores de Tributos de esta Diputación Foral y por aquellas personas designadas por la Diputación para desarrollar dicha función, especificando los grupos de funcionarios en los que podrán recaer las designaciones.

Vistas las Resoluciones de la Dirección de Función Publica número 1206 y número 1208, de fecha 3 de agosto de 2005, por las que se adscribe, en comisión de servicios, a dos funcionarios para desempeñar puestos de Inspectores Auxiliares de Tributos.

RESUELVO:

Designar para el ejercicio de las funciones de la Inspección de Tributos, en puestos de Inspectores Auxiliares de Tributos, a don Juan Carlos Blázquez González y a don Jesús Mariano García Ruiz, con efectos desde el día 1 de septiembre de 2005.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2005.– El Director de Hacienda, ANGEL BARRASA SOBRÓN.

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

DIRECCIÓN DE MEDIO AMBIENTE

**6.728**

**Anuncio**

En cumplimiento de la Orden Foral número 840/05 de 5 de octubre, se anuncia convocatoria de concurso abierto, para la contratación de “Asistencia técnica para la realización de diversos trabajos en el Parque Natural de Gorbeia”.